



Euskal Herrian, 2016ko urriaren 19ean

Jaun agurgarriak

Lehenik eta behin jaso gure errekonozimendua. Bakearen bidean aurrera egiteko orain arte erakutsitako konpromisoa nabarmentzekoa izan da, eta orain txalogarria deritzogu disposizio hori areagotzeko azaltzen ari zareten borondatea.

Zinez eskertzen dugu borondate hori. Izan ere, konponbidearen agendan aurrera egiteko zailtasun izugarriak ditugu. Begien bistakoa izan da agenda horri ekiteko estatuen boronda te eza. Are gehiago, aurrea egiteko urrats txikiena ere oztopatu dute. Aipatzen duzuen armagabetzearen auziari buruz, oso agerikoak izan dira ETAK arma eta lehergailuen inbentarioa egin eta armategiak zigilatzeke hasitako prozedurak jasandako mota guztietako erasoak.

ETAren aburuz, konponbideak integrala behar du izan. Gai guztiek izan behar dute aterabidea, bakea behin betiko errotu dadin. Armategien auzia eta presoan auzia ditugu bi adibide nagusienetakoak. Halere, jakin ere badakigu alor bakoitzean, ahal den neurrian, aurrera egin beharra dagoela, azkenean denetan urratsak egiteko baldintzak sortu ahal izateko.

Horrenbestez, izandako arazoak ikusita eta armagabetzerako bidean laguntzeko zuen eskaintzak duen balio handiaz jabetuta, jakinarazi nahi dizuegu ETA prest dela bide hori egiteko, hau da, armen deuseztatzea edo erabileraz kanpo uztea eta armategiak desegitea gizarte zibilaren eta nazioarteko eragileen bidez egiteko, gobernuen parte-hartzea, prozesuak segurtasun handiagoa izan dezan, baztertzerik ezin bada ere. Nolanahi ere, gaur gaurkoz, hauxe da ETAren abiapuntua: Euskal Herriko gizarte zibilaren esku utziko lituzkeela bere armak, nazioarteko eragileen parte-hartzearekin, desegin daitezzen. Euskal erakundeen inplikazioa eta babesak ere bilatu beharko litzateke. Jakina, horrelako lan bat hartzeko nahikoa baliabidek lortu ahal daitezkeen aztertu beharko duzue, prozesu hau modurik eraginkorrenean egin ahal izateko. Ez da gauza erraza izango.

Baliabide horiek lortzerik bada eta bide horretan barrena egiteko prest bazinete, hori dena egin ahal izateko metodoa zehaztu beharko genuke.

Aurrerantzean ere elkarren berri izango dugulako, jaso gure agurra.

Adeitasunez

Euskadi Ta Askatasunaren Zuzendaritzaren Batzordea

